138 *Jehoba da zure izena*

(83. Salmoa 19 [83:18, *NW*])

1. Egiazko Jainko,
guztiaren sortzaile,
biziaren emaile,
Jehoba, zara zu.
Hau bai ohorea
zureak izatea,
zure izen gorena
nahi dugu zabaldu.

(*ERREPIKA*)
Jehoba, Jehoba,
zu zara bakarra.
Ez zeruan, ez lurrean,
antzekorik ez da.
Ahalguztidun zarela,
goaz esatera.
Jehoba, Jehoba!
Jainko bakarra zu zara.

2. Zure eraginez
zuk nahi duzuna gara,
zure izena baita,
Jehoba, handia.
Gu zure lekuko
izendatu gaituzu,
ohorez bete duzu,
bai, zure herria!
(*Errepika*)

(Ikusi 2 Kro 6:14; Sal 72:19; Is 42:8 ere)

© 2015 Watch Tower Bible and Tract Society of Pennsylvania